



## *PARTE-HARTZEA ETA ESPERIENTZIAK TRUKATZEA*

Dbus-ek modu aktiboan hartzen du parte nazioarteko zenbait foro eta lantaldetan, garraio publikoko eta hiri mugikortasuneko profesionalekin esperientziak konpartituta.

2017an, Dbus-ek modu aktiboan hartu du parte zenbait jardunaldi, foro eta lantaldetan.

## I FOROAK ETA LANTALDEAK

Dbus nazioarteko hainbat foro eta lantaldetan parte hartzen ari da modu aktiboan, garraio publikoko eta hiriko mugikortasuneko profesionalekin esperientziak partekatuz. 2017an Dbusek hainbat jardunaldi, foro eta lantaldetan hartu du parte modu aktiboan.

### 1.1 ATUC-en (Asociación de Empresas Gestoras de los Transportes Urbanos Colectivos) Batzordeak

- ATUC-en Batzorde Ekonomiko eta Finantzarioa.
- ATUC-en Material Higikorren Batzordea.
- ATUC-en Teknologia Berri, Marketin eta Kalitate Batzordea.
- ATUC-en Giza Baliabideen Batzordea.

2017an, Dbusek **ATUC-en XXIII. Kongresuan** ere hartu du parte Bilbon.



### 1.2 Europako proiektuak

- **REPLICATE** proiektuaren partzuergoaren Batzar Nagusia Bristolen, Erresuma Batuan, eta berrikuspen bilera Florentzian, Italian.
- **EBSF\_2** proiektuaren erakusketarako nazioarteko ekitaldia, Donostian.

### 1.3. "Industri garapena eta mugikortasun iraunkorra" mahai inguruan parte hartzea.

Dbusek *Industri garapena eta mugikortasun iraunkorra. Erronkak eta aukerak Gipuzkoarako* izeneko mahai inguruan parte hartu zuen, Oronan, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta.

Ekitaldia **mugikortasun elektrikoari lotutako industri garapenerako lurraldeko estrategia** aurkezteko egin zen, eta bertan Dbusek Donostian autobus garraio publikoaren elektrifikazioari buruz eduki duen **esperientzia eta etorkizuneko ikuspegia jarri zuen.**

Jardunaldi horretan parte hartu zuten mugikortasunaren sektoreko adituek, ibilgailuen fabrikatzailek, erakundeetako ordezkariak eta garraioarekin lotura duten beste agente batzuek, Gipuzkoan mugikortasuna iraunkorra eta orekatua lortzeko jarraitu beharreko estrategia eta urratsak partekatuzeko asmoarekin.

#### I.4. Beste lantalde batzuk

- Donostiako hiriko **puntu kritiko**en maparen jarraipena egiteko eta prestatzeko lantaldea.
- Donostiako ikastetxeetarako **Mugikortasun Iraunkor eta Segururako** lantaldea.
- Gipuzkoako **Garraio Erregelamendua** prestatzeko lantaldea, GGLA.
- **Garapen Ebolutibo**en Mahai Teknikoa, GGLA.
- Mugikortasuneko **Kontseilu Sektoriala**.
- Donostia Hiri Lagunkoia plana inplementatzeko **Batzorde Teknikoa**.

## 2 BISITAK DBUS-ERA

Dbus nazioarteko erreferentzia da gaur egun garraio publikoko enpresa baten kudeaketan eta bere flotan teknologia berrien ezarpenean. Horren erakusgarri dira 2017an zehar jaso dituen bisitak, **nazionalak zein atzeritarrak, Dbus-ek egindako aurrerapen berriak ikusteko.**



2017an Dbusek lankidetzaz berezia eduki du Espainiako beste hiri batzuetako garraio publikoko operadoreekin, eta haiekin partekatu dituzten know-howa eta etorkizuneko proiektuak. Berezi nabarmenak izan dira hauek bisitak:

- **TMB**ko ordezkari bat (Bartzelonako Garraio Metropolitanoak)
- **In Der City Bus**, Frankfurtetako autobus zerbitzuaren enpresa operadorea.
- **Grupo Acha**, Bizkaibus hiri arteko zerbitzuak operatzen dituen enpresa.
- **Valentziako EMT enpresa**, Valentziako autobus publikoen enpresa operadorea.
- **Asturiaseko Garraio Partzuergoko** ordezkari bat.



Nabarmentzekoak dira, halaber, sektoreko adituen eta enpresa teknologikoetako ordezkarien bisitak, besteak beste hauenak:

- Teknikari belgikarren talde handi bat, Ganteko Mugikortasunaren eta Espazioaren Planifikazioaren Eskolatik etorriak (**School of Mobility & Spatial Planning**)
- **Luxenburgoko Garraioko eta Azpiegituretako Sailaren** ordezkariak.
- **WRI Mexico** aholkularitza (World Resources Institute), Mexiko Hirian egoitza duena.
- Asturiaseko Garraio **Partzuergoa**.



2017an zehar Dbusek **Donostiako ikastetxeetako haurren bisita ugari ere izan du**. Bisita horietan, **milaka haurrek** Dbuseko Kotxetegiak ikusi dituzte eta bisita didaktikoa egin dute, haurrak garraio publikoarekin ohitu daitezzen.





